

Toki-administrazioaren

# HIZTEGIA



KULTURA SAIA  
Hizkuntza Politikarako Saiburuordetza

DEPARTAMENTO DE CULTURA  
Viceconsejería de Política Lingüística

IVAP

HERRI ARDURALARTZAREN  
EUSKAL ERAKUNDEA

Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia

Servicio Central de Publicaciones del Gobierno Vasco

Vitoria-Gasteiz, 2010

Lan honen bibliografia-erregistroa  
Eusko Jaurlaritzaren Liburutegi Nagusiaren katalogoan aurki daiteke:

<http://www.euskadi.net/ejgvbiblioteka>

Argitaraldia: I.a, 2010eo

Ale-kopurua: 1.500 ale

© argitaraldi honena: Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorra

Argitaratzailea: Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia  
Servicio Central de Publicaciones del Gobierno Vasco  
Donostia-San Sebastián, I - 01010 Vitoria-Gasteiz

Internet: [www.euskadi.net/euskara21](http://www.euskadi.net/euskara21)

Inprimaketa: XXXXXXXXXXXXXXXXXXXXXXXX

ISBN: XXXXXXXXXXXXXXXX

Lege gordailua: XXXXXXXXX

## HITZAURREA

**H**IZKUNTZA EROSO eta erraz hitz egin eta erabiliko bada, baliabide eta tresna egokiak beharrezkoak dira, eta eginkizun horretan leku garrantzitsua betetzen dute hiztegiek. Hizkuntzak etengabe aldatzen dira bizirik badaude, garai eta behar berrietara egokitzeko, eta, horrenbestez, hizkuntza baten modernizazioaren eta eguneratzearen prozesua ez da inoiz amaitzen. Horregatik, hizkuntzaren altxor lexikoa etengabe elikatu behar da, hizkuntza bera normalizatzeko batetik eta erabiltzaileen beharrei erantzuteko bestetik. Horregatik, helburu horri jarraituta argitaratzen dugu eskuartean duzun hiztegi hau, zalantzarik gabe, euskararen erabilera erraztuko duena.

Euskara Biziberritzeko Plan Nagusiak, corpus-plangintzari eta euskararen kalitateari dagokienez, Hiztegi Batua amaitu eta argitaratzea, eta datozen urteotarako terminologia-lanaren plangintza egitea agindu zuen (EBPN VI.3.3.a).

Hori horrela, Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak (HPS) EBPNk agindutakoa gauzatzeko, hainbat ekimen jarri zuen martxan: batetik, "EUSKALTERM Euskal Terminologia Banku Publikoa" sortu zuen 2001ean; bestetik, Terminologia Batzordea eratu zuen Euskararen Aholku Batzordearen barruan.

EUSKALTERM erabilera publikoko bankua da, Eusko Jaurlaritzak bideratu eta sustatu nahi duen terminologiaren produkzioaren, ku-deaketaren eta hedapenaren muina. Banku hori metodologia eta irizpide jakin batzuen arabera eguneratu eta elikatzen da, beti ere Terminologia Batzordeak onartutako jarduketa-planak jarraituz.

Beraz, EUSKALTERM Terminologia Banku Publikoa etengabe elikatzen eta zabaltzen ari gara Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzatik IVAPekin lankidetzan, euskal terminologiaren normalizazioari eta zabalkundeari ekin eta eusteko. Terminologia Batzordeari dagokio, bestalde, terminologia-alorrean dauden lehentasunak finkatzea, lan-proposamenak egin, terminologia-lanerako irizpideak ezartzea eta abar.

Lan horren guztiaren emaitza da eskuartean duzuen hiztegi hau. Hiztegia jorratzen duen eremuko erabiltzaileen premiak asetzeko baliagarri izatea nahi genuke, bai eta gure hizkuntzaren normalizazio eta eguneraketaren bidean urrats garrantzitsua izatea ere. Hiztegi hau eta honekin batera argitaratzen ditugun guztiak eguneroko jardunean erabiltzera animatzen zaituztegu guztiok, euskaldunok lexiko gero eta aberatsagoa izan dezagun gure eguneroko bizitzan ere.

Vitoria-Gasteiz, 2010eko maiatzaren 5a

**Lourdes Auzmendi Ayerbe**

*Hizkuntza Politikarako sailburuordea*

## HIZTEGIARI BURUZKO ARGIBIDEAK

Hiztegi hau UZEI Terminologia eta Lexikografia Zentroak egin du EUSKALTERM Terminologia Banku Publikoa ([www.euskara.euskadi.net/euskalterm](http://www.euskara.euskadi.net/euskalterm)) eguneratzeko eta elikatzeke entitate horrek Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzarekin (HPS) izenpetutako kontratuen barruan. Kontratuok HPSk eta IVAPek finantzatu dituzte, bi erakunde horiek sinatutako hitzarmenen bidez.

EUSKALTERM Terminologia Banku Publikoa da Terminologia Batzordeak finkatutako terminologia-lana zabaltzeko ardatza. Aldi berean esan behar da Terminologia Batzordeak onartutako jarduketa-planen barruan ezarritako lehenetsuen arabera eguneratzen dela Terminologia Banku Publikoa.

Euskararen Aholku Batzordeko Terminologia Batzordeak<sup>1</sup> euskarazko terminologia-lanerako finkatu zuen metodologiari jarraituta, hiztegi hau, lehenengoz, hizkuntzalariez eta eremuko adituez osatutako batzorde teknikoak aztertu eta landu zuen, Terminologia Batzordeari behin betiko proposamena luzatzeko. Normalizazio-prozesuaren azken urratsa Terminologia Batzordeak onartzea izan da.

Beraz, hemen duzue eremu honetako terminologiaren erabiltzaileei Terminologia Batzordeak gomendatzen dien terminologia.

---

1 176/2007 DEKRETUA, urriaren 16koa, Euskararen Aholku Batzordeari buruzkoa

### **Hiztegien erabilitako ponderazio-markak:**

(4) Termino normalizatua / gomendatua

(3) Termino onartua (baina ez lehenetsia, beste bat gomendatzen delako)

Hiztegien erabilitako laburtzapenak:

**eu** euskara

**es** español

**Sin.** sinonimoa

**Ik.** ikus

## NORMALIZAZIOA

### BATZORDE TEKNIKOA

**Juana Goizueta** (EHU)

**Alberto Atxabal** (Deustuko Unibertsitatea)

**Iker Etxebeste** (UZEI)

Koordinatzailea: **Izaskun Osinalde** (HPS)

### TERMINOLOGIA BATZORDEA

**Patxi Baztarrika**, Hizkuntza Politikarako sailburuordea

**Jon Koldobika Urrutia**, IVAPEko zuzendari nagusia

**Erramun Osa**, EABko idazkaria

**Araceli Díaz de Lezana**, HPSko ordezkaria

**Mertxe Olaizola**, IVAPEko ordezkaria

**Andoni Sagarna**, Euskaltzaindiaren ordezkaria

**Iker Etxebeste**, UZEIko ordezkaria

**Xabier Alberdi**, EHUko Euskara Institutuko ordezkaria

**Ibon Olaziregi**, Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa

Sailaren Euskara Zerbitzuaren ordezkaria

**Alberto Atxabal**, aditua

**Joseba Erkizia**, aditua

**Miel Loinaz**, aditua

**Asier Larrinaga**, aditua

**Alfontso Mujika**, aditua

## EREMU - ZUHAITZA



01. Toki-erakundeak
02. Ahalak eta eskumenak
03. Biztanleria eta lurralde-mugaketa
04. Antolaketa
05. Jarduna eta araubide juridikoa
06. Ondasunak
07. Obrak eta zerbitzuak
08. Kontratazioa
09. Toki-erakundeetako langileak
10. Toki-ogasunak
11. Herri-administrazioen arteko lankidetzarako antolakundeak (toki-administrazioko gaitan)



## AURKIBIDEA



### **Bokabularioa sailka**

01. Toki-erakundeak . . . . . 12
02. Ahalak eta eskumenak . . . . . 16
03. Biztanleria eta lurralde-mugaketa . 18
04. Antolaketa . . . . . 22
05. Jarduna eta araubide juridikoa . . . 30
06. Ondasunak . . . . . 35
07. Obrak eta zerbitzuak . . . . . 38
08. Kontratazioa . . . . . 41
09. Toki-erakundeetako langileak . . . . 42
10. Toki-ogasunak . . . . . 48
11. Herri-administrazioen arteko lan-  
kideztarako antolakundeak (toki-  
administrazioko gaietan) . . . . . 52

**Euskarazko aurkibidea** . . . . . 55

**Gaztelaniazko aurkibidea** . . . . . 65

*Erreferentzia bibliografikoa* . . . . . 75



# **EUSKARA – ERDARAK**

## I. TOKI-ERAKUNDEAK

1

### administrazio-barruti

Nafarroan, 5.000 biztanle baino gutxiagoko udalerriz osatutako toki-erakundea. Administrazio-barrutia eratzen duten udalerriek hainbat eskumen eskuordetzan ematen dizkiote hari, jarduera edo zerbitzu publiko jakin batzuk eskaintzeko.

es distrito administrativo

2

### administrazio-zerbitzuen elkartzete

Udalerrien elkartzete mota; administrazio-zerbitzuak eta, bereziki, zerbitzu horien gastuak partekatzea da helburu nagusia.

es agrupación de servicios administrativos

3

### alberri

OHARRA: Udalerria baino lurralde-eremu txikiagoko erakundeek hartzen duten izenetako bat.

es lugar anejo

4

### alkate-auzo

OHARRA: Udalerria baino lurralde-eremu txikiagoko erakundeek hartzen duten izenetako bat.

es pedanía

5

### baserri

OHARRA: Udalerria baino lurralde-eremu txikiagoko erakundeek hartzen duten izenetako bat.

es caserío

6

### elizate

OHARRA: Udalerria baino lurralde-eremu txikiagoko erakundeek hartzen duten izenetako bat.

es anteiglesia

7

### eskualde

Ezaugarri edo interes erkideak dituzten udalerriak elkartzeko, autonomia-erki-degoak sortutako toki-erakundea, errealitate fisiko, ekonomiko eta historiko bat partekatzen duena. Ezaugarri edo interes horien berariazko kudeaketa eta zerbitzu-ematea udalerriaz gaindiko mailan egin behar direnean eratzen da.

es comarca

8

### hainbat udalerrri elkartzten dituen erakunde

Interes erkideak dauzkaten hainbat udalerrri elkartzuz osatutako toki-erakundea. Interes horiek garatzeko beharrezkoak diren kudeaketa propioak bideratzea eta zerbitzu jakin batzuk eskaintzea dira erakunde horren xedeak.

es entidad que agrupa a varios municipios

9

### herrixka

OHARRA: Udalerria baino lurralde-eremu txikiagoko erakundeek hartzen duten izenetako bat.

es aldea

10

**kontzeju**

OHARRA: Udalerria baino lurralde-eremu txikiagoko erakundeek hartzen duten izenetako bat da. Horrela deitzen dira, esaterako, Arabako eta Nafarroako udalerria baino lurralde-eremu txikiagoko erakundeak.

**es** concejo

11

**kuadrilla**

Arabian, hainbat udalerri osatutako toki-erakunde forala; udalerrri horien lurralde-eremu guztiari dagozkion arazoak kudeatzeko helburua du.

**es** cuadrilla

12

**lurralde mailako toki-erakunde**

Lurraldea eta biztanleria oinarri dituen toki-erakunde, xede orokorrak betetzeko sortua.

Pertsona juridiko publikoen ezaugarria da lurralde mailakoak izatea. Lurralde mailakoak diren pertsona juridiko publikoek lurraldea dute funtsezko elementu eta, horrenbestez, lurralde horretako biztanleei dagozkien oro dute beren ardurakoa. Horregatik, xede orokorrak betetzeko sortzen dira eta botere publiko nagusiak dagozkie: erregelamenduak egitea, jabetza kentzea, zergak ezartzea, herri-jabariaren titularrak izatea... Lurralde-mailakoak ez diren pertsona juridiko publikoak, aldiz, lurralde-mailako pertsona juridiko publikoek sortzen dituzte xede zehatzak betetzeko eta horretarako beharrezkoak dituzten ahalak eta eskumenak baizik ez dizkiete ematen. Lurraldea ahal eta eskumen hauek gauzatzeko eremua da, baina ez pertsona juridiko publiko hauen funtsezko elementua. Kritika ugari jaso dituelako krisian egon arren, doktrina tradiziona-

lean egin izan den bereizketa hau erabili egiten da lege-testuetan. Toki-arabuidearen oinarriak arautzen dituen 7/1985 Legearen 3. artikulua arabe-ra, udalerria, probintzia eta uhartera dira lurralde-mailako toki-erakundeak. Lege-testu bereko 4.2 artikuluan adierazten denez, autonomia-erkidegoetako legeriaren esku geratzen da gainerako toki-erakundeei izatera hori noraino aplikatu erabakitzea.

**es** entidad local territorial

13

**metropolialde**

Hiri-aglomerazio handiko udalerriek osatutako toki-erakunde; horietako herriguneeen artean dauden ekonomia eta gizarteko loturek zenbait zerbitzu eta obren plangintza batera egitea eta koordinatzea eskatzen dutenean eratzen da.

**es** área metropolitana

14

**ohiturazko elkarte**

Toki-administrazioko legea indarrean jarri aurretik herri-ondasunak zeuzkan edo administratzen zituen ohiturazko toki-erakunde; adibidez, Nafarroako Errege Bardeako Komunitatea, Enirio-Aralarko Mankomunitatea edo Guardiako Mendiko Anaiarte Zaharra. Legea indarrean jarri ondoren ere erakunde-izaera berezia gorde dute.

**es** agrupación tradicional; institución consuetudinaria de ámbito supralocal

15

**parrokia**

OHARRA: Udalerria baino lurralde-eremu txikiagoko erakundeek hartzen duten izenetako bat.

**es** parroquia

16

**probintzia**

Udalerri-elkarketaz osatzen den lurralde mailako toki-erakundea eta estatuko jarduerak betetzeko lurralde-antolaketa; nortasun juridikoa du eta bere helburuak betetzeko gaitasun osoa.

Ekonomiari eta gizarteari buruzko politikaren esparruan, udalerrien arteko elkartasun- eta oreka-printzipioa bermatzea da probintziaren helburu zehatz eta berezkoa. Diputazioa da haren gobernu-organo nagusia.

**es** provincia

17

**toki-erakunde**

Toki-administrazioa osatzen duen erakundeetako bakoitza.

**es** entidad local

18

**udalerri**

Estatuaren lurralde-antolaketa-eraren lurralde mailako erakunde oinarritzkoa. Herritarrek herri-arazoetan esku hartzeko hurbilen duten bidea izanik, nortasun juridikoa du, eta bere helburuak betetzeko gaitasun osoa. Lurraldea, biztanleria eta antolaketa dira udalerrriaren osagaiak, eta udala da haren gobernu-organo nagusia.

**es** municipio

19

**udalerrri bakun**

Kontzeju gisa bereizitako herrigunerik ez duen udalerria.

**es** municipio simple

20

**udalerrri konposatu**

Kontzeju gisa bereizitako herrigune bat edo gehiago dituen udalerria.

**es** municipio compuesto

21

**udalerria baino lurralde-eremu handiagoko erakunde (4)**

Sin. udalerriaz gaindiko erakunde (3)

**es** entidad de ámbito supramunicipal

22

**udalerria baino lurralde-eremu txikiagoko erakunde (4)**

Sin. udalez peko erakunde (3)

Udalerriaren barruan sakabanatuta dauden herriguneei kudeaketa deszentralizatua izan dezaten sortutako toki-erakundea; autonomia-erkidego bakoitzak toki-araubideari buruz dituen legeek arautzen dute erakunde horien jarduna. Toki-erakundeon ohiko izenak hauek dira: baserria, parroikia, herrixka, auzoa, elizatea, kontzejua, alkate-auzoa, alberria edo antzeko beste izen batzuk, edo legeak ezartzen dituenak.

**es** entidad de ámbito territorial inferior al municipio; entidad local menor; entidad inframunicipal

**udalerriaz gaindiko erakunde**

Ik. udalerria baino lurralde-eremu handiagoko erakunde

23

**udalerrrien elkartze**

Nafarroako Foru Erkidegoak hainbat udalerrri elkartzuz sortzen duen toki-erakundea. Udalerrri horiei zerbitzu jakin batzuk hobeto ematea da helburua.

**es** agrupación de municipios

24

**udalerrien mankomunitate**

Udalerriek beren eskumeneko zenbait obra eta zerbitzu elkarrekin burutzeko sortutako udalerriez gaindiko toki-erakundea. Mankomunitatea sortzeko ez da beharrezkoa udalerririk mugakideak izatea, probintzia berekoak izatea edo autonomia-erkidego berekoak izatea.

**es** mancomunidad de municipios

**udalez peko erakunde**

Ik. udalerrria baino lurralde-eremu txikiagoko erakunde

25

**uharte**

Balear eta Kanariar uhartedietako lurralde mailako toki-erakundea. Uhartea ez da toki-erakunde naturala, legez sortutako erakundea baizik. Ez dira beti bat etortzen 'uharte' toki-erakundearen lurraldea eta 'uharte' eremu geografikoarena. Lurraldea toki-erakundearen elementuetako bat da, baina ez bakarra. Toki-erakundetzat hartu ahal izateko, lurraldeaz gain biztanleria eta nahitaezko zerbitzuak emateko gutxieneko gaitasun ekonomikoa behar ditu uharteak.

**es** isla

26

**zerbitzu-ermandade**

Arabako udalerrri eta kontzeju batzuek osatutako mankomunitatea. Zerbitzu eta obra jakin batzuk egiteko antolakuntza orokor eta egonkorra eratzea da haren helburua.

**es** hermandad de servicios

## 2. AHALAK ETA ESKUMENAK

27

**egintzak eta akordioak ofizioz berrikusteko ahal**

es potestad de revisión de oficio de actos y acuerdos

28

**egintzak zuzenbidearen araberakoak eta bete beharrekoak direla jotze**

es presunción de legitimidad y ejecutividad de los actos

29

**erregelamenduak egiteko ahal**

es potestad reglamentaria

30

**eskumen eskusibo**

es competencias exclusivas

31

**eskumen eskuordetu**

es competencias delegadas; competencias atribuidas

32

**eskumen partekatu**

es competencias concurrentes; competencias compartidas

33

**eskumen propio**

es competencias propias

34

**finantzatzeko ahal**

es potestad financiera

35

**jabetza kentzeko ahal**

es potestad expropiatoria

36

**nahitaez betearazteko ahal**

es potestad de ejecución forzosa

37

**nork bere burua antolatzeko ahal**

es potestad de autoorganización

38

**ondasunak eta eskubideak enbargatzeko ezintasun**

es inembargabilidad de bienes y derechos

39

**ondasunak ikertzeko ahal**

es potestad de investigación de los bienes

40

**ondasunak mugatzeko ahal**

es potestad de deslinde de los bienes

41

**ondasunak ofizioz berreskuratzeke ahal**

es potestad de recuperación de oficio de los bienes

**planifikatzeko ahal**

Ik. programatzeko ahal

42

**programatzeko ahal (4)**

Sin. planifikatzeko ahal (3)

es potestad de programación; potestad de planificación



43

**toki-kredituen hurrenkereta eta lehentasun**

es prelación y preferencia de los créditos locales

44

**tributuak ezartzeko ahal**

es potestad tributaria

45

**utzarazpen administratibo**

es desahucio administrativo

46

**zehatzeko ahal**

es potestad sancionadora

### 3. BIZTANLERIA ETA LURRALDE-MUGAKETA

47

#### **Arabako Toki Erakundeen Foru Erregistroa**

Arabako Lurralde Historikoko toki-era-kunde guztiak inskribatzen diren foru-erregistroa; izaera publikoa du.

**es** Registro Foral de Entidades  
Locales de Álava

48

#### **armarri**

**es** escudo

49

#### **auzo**

OHARRA: Udalerria baino lurralde-ere-mu txikiagoko erakundeek hartzen duten izenetako bat.

**es** barrio

50

#### **auzotar**

Ohiko bizilekua udalerrri batean izanik, bertako udal-erroidan inskribatuta dagoen pertsona.

**es** vecino

51

#### **banantze**

Udalerrri bateko edo gehiagotako lurralde-zati bat bereiztea, beste udalerrri bati gehitzeko edo udalerrri berria sortzeko. Udal-mugartea aldatzeko moduetako bat da.

**es** segregación

52

#### **bandera**

**es** bandera

53

#### **bizilekua atzerrian duten espainiarren errolda**

Espainiar nazionalitatea izanik ohiko bizilekua Espainiatik kanpo duten pertsonen administrazio-erregistroa. Nazionalitate bakarrekoak edo gehiagokoak izan daitezke pertsona horiek. Errolda horretan dauden pertsonak erroldako zehaztasunetan ageri den Espainiako udalerrriko auzotar izango dira, baina soilik botoa emateko eskubidea aitortuko zaie.

**es** padrón de españoles residentes  
en el extranjero

54

#### **Bizkaiko Toki Erakundeen Foru Erregistroa**

Bizkaiko Lurralde Historikoko toki-erakunde guztiak inskribatzen diren foru-erregistroa; izaera publikoa du eta udal-barrutietan eskumena duen Foru Aldundiko organoak zuzentzen, kudeatzen eta gordetzen du.

**es** Registro Foral de Entidades  
Locales de Bizkaia

55

#### **biztanlegune**

**es** núcleo de población

56

#### **biztanleria**

Udal-erroidan inskribatuta dauden pertsonen multzoa.

**es** población

57

**egoile**

Arabian, kontzejuko edo udaleko errol-dan inskribatuta ez badago ere, kontzejuko etxe batean bizi den pertsona.

es morador

58

**enklabe**

Udalerrri baten eskumenekoa izanik, beste udalerrri batenak diren lurrez erabat inguratuta dagoen lur-eremua.

es enclave

59

**erroldatze**

es empadronamiento

60

**Erroldatze Kontseilua**

Errolda-gaietan lankidetzan aritzeko, Estatuko Administrazio Orokorraren eta toki-erakundearen artean sortutako kide anitzeko organoa.

es Consejo de Empadronamiento

61

**Euskadiko Tokiko Administrazioaren Errolda**

Euskadiko toki-erakunde guztiak inskribatzen diren erregistroa; izaera publikoa du eta Toki Administrazio Sailburuordetzari atxikita dago.

es Registro de Administración Local de Euskadi

62

**familia-unitate**

es unidad familiar; unidad fogueral (Arabako kontzejuetan)

63

**Gipuzkoako Toki Erakundearen Foru Errolda**

Gipuzkoako Lurralde Historikoko toki-erakunde guztiak inskribatzen diren foru-erregistroa; izaera publikoa du eta udal-barrutietan eskumena duen Foru Aldundiko organoak zuzentzen, kudeatzen eta gordetzen du.

es Registro Foral de Entidades Locales de Gipuzkoa

64

**kontzeju-errolda**

Arabian, kontzeju bateko auzotarrak biltzen dituen errolda.

es padrón concejil

65

**kontzeju-mugarte**

Kontzejuak bere eskumenak erabiltzeko duen lurraldea.

es término concejil

66

**kontzejua azkentze**

Kontzeju batek kontzeju-izaera galtzea. Gobernu- eta administrazio-organok sunsituko dira, eta ondasunen nahiz eskubide eta betebeharren titulartasuna galduko da; udalak hartuko ditu bere gain.

es extinción del concejo

67

**mugarritzatze**

Udalerrrien arteko mugak markatzen dituzten mugarriak jartzea.

es amojonamiento

68

**Nafarroako Entitate Lokalen Erregistroa**

Nafarroako foru-lurraldeko toki-erakunde guztiak inskribatzen diren erregistroa; izaera publikoa du eta Administrazio Lokaleko Departamentuaren mende dago.

es Registro de Entidades Locales de Navarra

69

**Toki Erakundearen Erregistroa**

Espainiako lurraldeko toki-erakunde guztiak inskribatzen diren erregistroa; izaera publikoa du eta Toki Administrazioaren Zuzendariordetza Nagusiaren mende dago, Toki Administrazioaren Zuzendaritza Nagusian.

es Registro de Entidades Locales

70

**toki-erakundearen auzoburu**

Udalerri bat edo udalerria baino lurralde-eremu txikiagoko toki-erakunde bat eratzen duten herriguneeen artean nagusia. Udalerrietan, bertan izan ohi da udaletxea.

es capital de la entidad local

71

**toki-erakundearen auzoburutza**

OHARRA: Udalerrietan edo udalerria baino lurralde-eremu txikiagoko toki-erakundeetan.

es capitalidad de la entidad local

72

**toki-erakundearen hiriburu**

Udalerria baino lurralde-eremu handiagoko toki-erakunde batean, botere publikoaren egoitza duen hiri nagusia.

es capital de la entidad local

73

**toki-erakundearen hiriburutza**

OHARRA: Udalerria baino lurralde-eremu handiagoko toki-erakundeetan.

es capitalidad de la entidad local

74

**toki-erakundearen izen**

es denominación de la entidad local

75

**udal-barruti**

es distrito municipal

76

**udal-erroldea**

Udalerri bateko auzotarrak biltzen dituen administrazio-erregistroa. Pertsona batek bizilekua eta ohiko egoitza udalerri horretan dituela frogatzen dute erroldako datuek.

es padrón municipal

77

**udal-mugarte**

Udalak bere eskumenak burutzeko hartzen duen lurraldea.

es término municipal

78

**udal-mugartea aldatze**

Udalerriaren lurraldea hedatzea edo murriztea eragiten duen legezko aldaketa. Edonola ere, probintziaren mugak ezin dira aldatu.

es alteración del término municipal

79

**udal-mugartea mugatze**

Udal-mugartearen mugak zehaztea eta muga horiek fisikoki irudikatzea.

es deslinde del término municipal

**80**

**udalerria eranste**

Udalerrri baten edo batzuen mugartea udalerrri mugakide bati gehitzea, udalerrri berria eratu gabe. Udal-mugartea aldatzeko moduetako bat da.

**es** incorporación de municipio;  
agregación de municipio

**81**

**udalerrria ezabatze**

**es** supresión de municipio

**82**

**udalerrria sortze**

**es** creación de municipio

**83**

**udalerrriak bat egite**

Hainbat udalerrriren mugartek batzea, udalerrri berria eratzeko. Udal-mugartea aldatzeko moduetako bat da.

**es** fusión de municipios

**84**

**udalerrrien mapa**

**es** mapa municipal

## 4. ANTOLAKETA

85

### administrazio-batzar

Arabian, kontzejuaren administrazioaz arduratzen den organoa, errejidore-batzarburuak eta batzarkide-kopuru mugatu batek osatua. Kontzeju itxietan, gobernuaz ere arduratzen da (irekietan, auzo-batzarrak du horren ardura).

**es** junta administrativa

86

### aholkularitza juridikoko organo

OHARRA: Biztanle-kopuru handiko udalerrietan.

**es** órgano de asesoría jurídica

87

### alkate

Udalbatzako burua. Haren eskumenean daude, besteak beste, udalaren gobernua eta administrazioa zuzentzea, udala ordezkatzea, osoko bilkuretan buru izatea, udalaren zerbitzuak eta lanak zuzentzea eta ikuskatzea, aurrekontuaren kudeaketa garatzea eta langile guztien buru izatea.

**es** alcalde

88

### alkatearen ordezkari pertsonal

Herrigunetik bereizita egon arren toki-erakunde ez diren auzoetan edo zerbitzu-emateak hala eskatzen duen hirietan alkateak bertako auzotarren artean izendatzen duen ordezkaria. Agintari izaera du udal-eginkizunak betetzera-koan, alkatearen ordezkari den aldetik.

**es** representante personal del alcalde

89

### alkateorde

Alkate-kargua hutsik bada edo alkatea kanpoan, gaixorik edo ezinduta bada, izendapen-hurrenkeraren arabera haren eginkizunak betetzen dituen zinegotzia. Gainera, alkateari dagozkion eginkizunak har ditzake eskuordetzan hark berariaz emanda. Alkateak askatasunez izendatu eta kentzen ditu alkateordeak tokiko gobernu-batzarreko kideen artean, eta batzar hori ez bada, zinegotzien artean.

**es** teniente de alcalde

90

### araubide berezi

Arautegi orokorrarekiko berezitasunak dauzkan araubidea.

**es** régimen especial

91

### araubide erkide

Arautegi orokorraren mende dagoen araubidea. Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen Legeak osatzen du, funtsean, arautegi orokor hori.

**es** régimen común

92

### arloko kontseilu

Udal-gaietan herritarren eta herritarren elkarrean parte-hartzea bideratzeko organoa. Kontseilu bakoitzaren jardueraren arloari dagozkion udal-ekimenei buruzko txostenak eta proposamenak egitea beste eginkizunik ez du.

**es** consejo sectorial

93

**auzo-alkate**

1. Auzo-batzordeko lehendakaria. 2. Auzo-batzarreko lehendakaria, udalerria baino lurralde-eremu txikiagoko kontzejuko irekietan.

es alcalde pedáneo

94

**auzo-batzar**

Kontzejuko irakurketa araubidean, udalerriko edo udalerria baino lurralde-eremu txikiagoko erakundeko hautesle-errola osatzen duten guztien bilkura.

es asamblea vecinal

95

**auzo-batzarreko lehendakari**

es presidente de la asamblea vecinal

96

**auzo-batzorde**

Kontzejuko txikiak araubidea duten erakundeetan, bereziki administrazioaz arduratzen den organoa, batzordeko lehendakariak eta batzordekide-kopuru mugatu batek osatua.

es junta vecinal

97

**barrutiko udal-batzar**

Kudeaketa deskontzentratuko lurralde-organoa, udal-erakundearen gaiak hobeto kudeatzea eta herritarren parte-hartzea erraztea helburu duena.

es junta municipal de distrito

98

**biztanle-kopuru handiko udalerri**

Toki Araubidearen oinarriak arautzen dituen 7/1985 Legearen X. tituluan zehaztutako antolakuntza araubide berezia aplikatzen zaion udalerria. Sail honetan sartzen dira 250.000 biztanle baino gehiagoko udalerriak eta probintzia-hiriburu diren 175.000 biztanle baino gehiagokoak; baita ere, dagokion legebiltzarrak onartuz gero, probintzia-edo autonomia-hiriburu direnak, autonomia-erakundeen egoitza direnak, eta, 75.000 biztanle baino gehiago eduki eta izaera bereziren bat (ekonomikoa, historikoa, soziala edo kulturala) duten udalerriak.

es municipio de gran población

99

**bozeramaileen batzar**

es junta de portavoces

100

**diputatu eskuordedun**

Diputazioko lehendakariaren eskumen bat eskuordetuta duen diputatua.

es diputado-delegado

101

**ekonomia, finantzak eta aurrekontua kudeatzeko organo**

OHARRA: Biztanle-kopuru handiko udalerrietan.

es órgano de gestión económico-financiera y presupuestaria

102

**erregidore-batzarburu**

Arabian, kontzejuko lehendakaria edo burua.

es regidor-presidente

103

**erreklamazio ekonomiko-administratiboak ebazteko organo**

OHARRA: Biztanle-kopuru handiko udalerrietan.

**es** órgano para la resolución de las reclamaciones económico-administrativas

104

**fede-emaile**

Arabako kontzejuetako auzo-batzarretan edo administrazio-batzarretan idazkari-kargua betetzen duen pertsona.

**es** fiel de fechos

105

**hiriko gizarte-kontseilu**

Biztanle-kopuru handiko udalerrietan, ekonomia- eta gizarte-elkarteetako eta profesionalen eta auzotarren elkarteetako ordezkarietz osatutako kontseilua. Hiriko ekonomia, estrategia-planak eta proiektu nagusiak garatzeko txostenak, azterlanak eta proposamenak egiteaz gain, osoko bilkurak arau organikoaren bidez zehaztutako eginkizunak dira haren ardura.

**es** consejo social de la ciudad

106

**informazio-batzorde**

**es** comisión informativa

107

**informazio-batzorde berezi**

Gai jakin bat aztertzeo, gai horren ezaugarri bereziak direla-eta osoko bilkurak eratzen duen informazio-batzordea. Batzordea desegin egiten da irizpena emateaz bat edo txostena egiteaz bat, batzordea sortzeo osoko bilkuraren erabakian bestelakorik xedatu ezean.

**es** comisión informativa especial

108

**informazio-batzorde iraunkor**

Izaera orokorreko informazio-batzordea, osoko bilkurak erabaki beharreko gaien banaketaren arabera eraturakoa. Osoko bilkurak erabaki behar ditu, alkateak edo lehendakariak proposatuta, informazio-batzorde iraunkorren hasierako kopurua eta izenak eta korporazioaren agintaldian izan ditzaketen aldaketak; informazio-batzorde hauen kopuruak eta izenek bat etorri behar dute, ahal dela, korporazioko zerbitzuek hartzen dituzten arlo nagusiekin.

**es** comisión informativa permanente

109

**iradokizunen eta erreklamazioen batzorde berezi**

Udal-administrazioaren aurrean auzotarren eskubideen alde egiten duen batzordea; zerbitzuen inguruko kexa eta iradokizunen berri ematen dio udalari. Biztanle-kopuru handiko udalerrietan izan ohi da.

**es** comisión especial de sugerencias y reclamaciones

110

**kontuen batzorde berezi**

Udaletan, kontuak aztertzeo ardura duen batzordea, kontu horiek osoko bilkurari onartzeko aurkeztu baino lehen.

**es** comisión especial de cuentas



111

**kontzeju ireki**

Toki-araubide berezia; udalerrria bada, gobernatzeko eta administratzeko organotzat alkatea eta hautesle guztien artean osatutako auzo-batzarra ditu; udalerrria baino lurralde-eremu txikiagoko erakundea bada, gobernatzeko eta administratzeko organotzat auzo-alkatea eta hautesle guztien artean osatutako auzo-batzarra ditu.

es concejo abierto

112

**kontzeju itxi**

Arabako kontzejuen araubide berezia, gobernatzeko eta administratzeko organotzat administrazio-batzarra eta errejidore-batzarburua dituena.

es concejo cerrado

113

**kontzeju-batzar**

Nafarroan, kontzejuaren gobernuaz eta administrazioaz arduratzen den organoa, batzarreko lehendakariak eta bokal kopuru mugatu batek osatua.

es junta de concejo; junta concejil

114

**kontzejuko bokal**

es vocal del concejo

115

**kontzejuko lehendakari**

Kontzejuko gobernu- eta administrazio-kargu goreneko pertsona. Legeak alkateari aitortzen dizkion eskumenak ditu kontzejuaren mugartean.

es presidente del concejo

116

**koordinatzaile nagusi**

Biztanle-kopuru handiko udalerrietan, zinegotzitza edo udal-arlo nagusi bateko burua.

es coordinador general

117

**kuadrillako batzar**

Kuadrillaren administrazioaz arduratzen den organo gorena, hainbat batzarkidez osatua. Kuadrillako udalerrri bakoitzak batzarrean duen kide-kopurua udalerrriaren biztanle-kopuruaren arabera da.

es junta de cuadrilla

118

**osoko bilkurako batzorde**

OHARRA: Biztanle-kopuru handiko udalerrietan.

es comisión del pleno

119

**osoko bilkurako idazkari nagusi**

OHARRA: Biztanle-kopuru handiko udalerrietan.

es secretario general del pleno

120

**probintziako diputatu**

Probintziako diputazioko korporazioa osatzen duten pertsonetako bakoitza. Auzotarrek bozketa bidez hautatzen dituzte probintziako udaletako zinegotzien artean, eta diputatu horien artetik hautatzen da diputazioko lehendakaria.

es diputado provincial

121

**probintziako diputazio**

Probintzia administratzen eta gobernatzen duen organo nagusia. Zuzenbide publikoko korporazio hau osatzen duten nahitaezko organoak dira: lehendakaria, lehendakariordeak, osoko bilkura eta gobernu-batzarra.

es diputación provincial

122

**probintziako diputazioko gobernu-batzar**

Diputazioko lehendakariak eta hark askatasun osoz hautatutako diputatuek (diputatuen herenak, gehienez ere) osatutako gobernu-organoa. Haren egitekoen artean dago diputazioko lehendakariari bere zereginetan laguntzea eta lehendakariak eskuordetzan emandako edo legeek aitortutako funtzioak betetzea.

**es** junta de gobierno de la diputación provincial

123

**probintziako diputazioko lehendakari**

Probintziako diputazioko burua. Haren eskumenean daude, besteak beste, probintziaren gobernu eta administrazioa zuzentzea, diputazioa ordezkatzea, osoko bilkuretan buru izatea, diputazioaren zerbitzuak eta lanak zuzentzea, aurrekontuaren kudeaketa garatzea eta langile guztien buru izatea.

**es** presidente de la diputación provincial

124

**probintziako diputazioko lehendakariorde**

Probintziako diputazioko lehendakariaren kargua hutsik bada edo lehendakaria kanpoan, gaixorik edo ezinduta badago, haren eginkizunak izendapen-hurrenkeraren arabera betetzen dituzten diputatueta bakoitza. Gainera, lehendakariari dagozkion eginkizunak har ditzakete eskuordetzan hark berariaz emanda. Lehendakariak askatasunez izendatzen ditu lehendakariordeak gobernu-batzarreko kideen artean.

**es** vicepresidente de la diputación provincial

125

**probintziako diputazioko osoko bilkura**

Diputazioko lehendakaria buru izanik, diputatu guztiek osatzen duten kide anitzeko organoa. Diputazioko organo gorena da, eta araugintzako, kontrolko, antolakuntzako, finantzetako eta diputazioaren defentsa juridikoko eskumenak ditu bere gain.

**es** pleno de la diputación provincial

126

**toki-administrazio**

Hauek osatzen dute Espainiako toki-administrazioa: 1. Lurralde-mailako toki-erakunde hauek: a) Udalerriak. b) Probintziak. c) Uharteak, Balear eta Kanariar uhartedietan. 2. Baita toki-erakunde diren hauek ere: a)

Autonomia-erkidegoek eratu edo onartutako udalerria baino lurralde-eremu txikiagoko erakundeek. b) Kasuan kasuko autonomia-estatutuekin bat etorritik autonomia-erkidegoek eratuta zenbait udalerri osatutako eskualdeek zein beste erakunde batzuek. c) Metropolialdeek. d) Udalerrien mankomunitateak.

**es** administración local

127

**toki-korporazio**

1. Toki-erakunde bat gobernatzeko eta administratzeko ordezkaritza duen kide anitzeko organo gorena. 2. Toki-erakunde, korporazio erako entitateak den heinean.

**es** corporación local

128

**tokiko gobernu-batzar**

Alkateak eta hark askatasun osoz hautatutako zinegotziek (zinegotzien herenak, gehienez ere) osatutako udal-gobernuko organoa. Haren egitekoen artean dago alkateari bere zereginetan laguntzea eta alkateak nahiz beste udal-organo batek eskuordetutako nahiz legeek aitortutako funtzioak betetzea. Nahitaezkoa da 5.000 biztanle baino gehiagoko udalerrietan, gainerakoetan udaleko osoko bilkurak erabakiko du organo hori sortu edo ez.

es junta de gobierno local

129

**tokiko gobernu-batzarraren eta zinegotzi idazkariaren laguntza-organo**

es órgano de apoyo de la junta de gobierno local y del concejal-secretario

130

**tokiko gobernu-batzarreko zinegotzi idazkari**

OHARRA: Biztanle-kopuru handiko udalerrietan.

es concejal-secretario de la junta de gobierno local

131

**tributuak kudeatzeko organo**

OHARRA: Biztanle-kopuru handiko udalerrietan.

es órgano de gestión tributaria

132

**udal**

Udalerrria kudeatzen eta gobernatzen duen organo nagusia; udala osatzen duten nahitaezko organoak dira: alkatea, alkateordea, osoko bilkura eta, batzuetan, tokiko gobernu-batzarra. Udalarri dagokio udalerrria gobernatzea eta administratzea, legez kontzeju irekien araubidepean diharduten udalerrietan izan ezik.

es ayuntamiento

133

**udal-antolaketa**

es organización municipal

**udal-arlo**

Ik. zinegotzitza

**udal-korporazioa**

Ik. udalbatza

134

**udalbatza (4)**

Sin. udal-korporazioa (3)  
Udalerrri bateko zinegotziak eta alkatea.

es corporación municipal

135

**udaleko goi-organo**

OHARRA: Biztanle-kopuru handiko udalerrietan.

es órgano superior municipal

136

**udaleko kontu-hartzaile nagusi**

OHARRA: Biztanle-kopuru handiko udalerrietan.

es interventor general municipal

137

**udaleko kontu-hartzailletza nagusi**

Biztanle-kopuru handiko udalerrietan, udal-jardueraren barne-kontrolaz eta barne-fiskalizazioaz arduratzen den organoa.

es intervención general municipal

138

**udaleko osoko bilkura**

Alkatea buru izanik, zinegotzi guztiak osatzen duten kide anitzeko organoa. Herritarren borondatearen ordezkari-tza du eta udalaren organo gorena da. Araugintzako, kontroleko, antolakuntzako, finantzako eta udalaren defentsa juridikoko eskumenak ditu bere gain.

es pleno del ayuntamiento; pleno municipal; pleno de la corporación municipal

139

**udaleko zuzendaritza-organoa**

OHARRA: Biztanle-kopuru handiko udalerrietan.

es órgano directivo municipal

140

**uharte arteko probintzia-man-komunitate**

Kanariar Uhartedia osatzen duten bi probintzietako bakoitzaren interesak ordezkatu eta adierazi beste eskumenik ez duen organoa. Probintzia bakoitzeko uharteetako kabildoetako lehendakari-ek osatzen dute organo hori, eta probintziako hiriburua dagoen uharteko kabildoko lehendakaria du buru.

es mancomunidad provincial interinsular

141

**uharteko kabildo**

Kanariar uharteetako bakoitza gobernatzen, ordezkatzen eta administratzen duen organoa.

es cabildo insular

142

**uharteko kontseilu**

Balear uharteetako bakoitza gobernatzen, ordezkatzen eta administratzen duen organoa.

es consejo insular

143

**zerbitzuak kudeatzeko organo deskontzentratu**

Lurralde-mailako toki-erakunde batek zerbitzuak zuzenean kudeatzeko sortutako organoa, toki-erakundearenaz bestelako nortasun juridikorik ez duena.

es órgano desconcentrado para la gestión de servicios

144

**zerbitzuak kudeatzeko organo deszentralizatu**

Lurralde-mailako toki-erakunde batek zerbitzuak zuzenean kudeatzeko sortutako organoa, nortasun juridiko propioa duena.

es órgano descentralizado para la gestión de servicios

145

**zinegotzi**

Alkatearekin batera udalbatza osatzen duten pertsonetako bakoitza.

Auzotarrek bozketa orokor, berdin, aske, zuzeneko eta isilpeko bidez hautatzen dituzte, eta zinegotzi horien arte-tik hautatzen da alkatea.

es concejal

I46

**zinegotzi ordezkari**

Alkatearen eskumen bat eskuordetuta duen zinegotzia.

es concejal-delegado

I47

**zinegotzitza (4)**

Sin. udal-arlo (3)

es área de gobierno; área municipal; concejalía

I48

**zuzendari nagusi**

Biztanle-kopuru handiko udalerrietako zinegotzitza edo udal-arlo nagusi batean, administrazio-antolakuntzaren ardura duen pertsona.

es director general

I49

**zuzendaritza nagusi**

OHARRA: Biztanle-kopuru handiko udalerrietan.

es dirección general

## 5. JARDUNA ETA ARAUBIDE JURIDIKOA

150

**administrazio-erantzukizun**

es responsabilidad administrativa

151

**administrazio-koordinazio**

es coordinación administrativa

152

**administrazioarekiko auzi-errekurtso**

es recurso contencioso-administrativo

153

**akta**

es acta

154

**arduraldi eskusiboko kargu (4)**

Sin. dedikazio eskusiboko kargu (3)

es cargo con dedicación exclusiva

155

**arduraldi partzialeko kargu (4)**

Sin. dedikazio partzialeko kargu (3)

es cargo con dedicación parcial

156

**artxiboetara eta erregistroetara jotzeko eskubide**

es derecho de acceso a los archivos y registros

157

**atxiki gabeko kide**

es miembro no adscrito

158

**auzibidearen aurreko erreklamazio**

es reclamación previa a la vía judicial

159

**auzo-elkarte**

es asociación vecinal; asociación de vecinos

160

**auzo-elkarteen udal-erregistro**

es registro municipal de asociaciones vecinales

161

**auzotarren akzio**

es acción vecinal

162

**bateraezintasuna sor dezaketen arrazoien eta jardueren interesen erregistro**

Toki-korporazioetako kideen bateraezintasuna eragin dezaketen arrazoiak eta diru-sarrerak ematen dizkieten jarduerak jasotzen dituen erregistroa; toki-korporazio bakoitzak du horrelako erregistro bat. Kargua hartu aurretik, kargua uztean eta gai honi buruzko inguruabarrak aldatzean egiten da erregistroan jaso behar diren datuen aitortpena.

es registro de intereses de causas de posible incompatibilidad y de actividades

163

**berraztertze errekurtso**

es recurso de reposición

164

**bilkura berezi**

es sesión extraordinaria

165

**bilkuretara joateko eginbehar**

es deber de asistir a las sesiones

166

**bilkuretara joateko eskubide**

es derecho a asistir a las sesiones

167

**boto partikular**

Irizpen bat aldatzeko planteamendua, informazio-batzordeko kide batek egina. Irizpenarekin batera joan behar du informazio-batzordeak hura onartzen duen egunaren biharamunetik aurrera.

es voto particular

**dedikazio eskusiboko kargu**

Ik. arduraldi eskusiboko kargu

**dedikazio partzialeko kargu**

Ik. arduraldi partzialeko kargu

168

**deialdi**

es convocatoria

169

**ebazpenen eta erabakien kopiak eta ziurtagiriak eskuratzeko eskubide**

es derecho a la obtención de copias y certificaciones de las resoluciones y acuerdos

170

**egintza aurkaratze**

es impugnación de acto

171

**egintzaren kontrol**

es control de acto

172

**erabakia aurkaratze**

es impugnación de acuerdo

173

**erabakiaren kontrol**

es control de acuerdo

174

**erregelamendu organiko**

Toki-erakundearen antolaketa eta funtzionamendua arautzen dituen erregelamendua, toki-erakundeak bere burua antolatzeko eskumena erabiliz egina.

es reglamento orgánico

175

**eskaera**

